

Anodino  
Teatroa

# MAMUAK

EZAGUTZERA JOAN ZEN  
JUMEA

Leire  
ORBE

Maite  
FOMBELLIDA

AUSA RTENTZAKO  
ikuskizun familiarra

MUSIKARIA  
Tomás  
RUTI

ZUZENDARITZA  
Aitor  
FERNANDINO

FORMATOA: Areto ikuskizuna

HIZKUNTZA: Euskara

IRAUPENA: 55 minutu

PUBLIKOA: Familiarra

### **TEASERRA:**

[Mamuak ezagutzera joan zen umea. Teaserra.](#)

### **SINOPSISIA**

“Ausarta zara, Malda!” esaten didate gurasoek.

Nik uste hori esaten didatela ausarta naizela sinistu dezadan.

Baina ni ez naiz ausarta, gauza askori diot beldurra.

Adibidez, mamuei.

Ez. Ez ditut inoiz ikusi baina badakit hor daudela.

Gaur, armairu barruan ezkututzen diren mamu horiek ezagutzera joango naiz eta beldurra eragiteari uzteko esango diet.

Bai. Hori egingo dut

## BELDURRAK EZAGUTZERA JOATEN GARENEAN

### Zergatik hitz egin beldurrari buruz?

Beldurrari buruzko antzezlan anitzak egin dira betidanik. Ez gara lehenak eta ez gara azkenak izango.

Baina gure nahia ikuspuntua aldatzea da.

Txikitan garatutako beldurrei buruz hitz egin nahi dugu, baina helduak garenean mantentzen direnak. Beldur horiek gure inkontzientean itsatsitako beldurrak dira, gure eguneroko bizitza egiterakoan lokarturikoak, baina usain, irudi edo kasu honetan bezela, ukimen batek beldur horiek esnatu ditzake.



Helduok erraminta ezberdinak irabazi ditugu bizi esperientziarekin eta gatazka asko konpontzeko baliogarriak dira; baina zer egin dezakegu txikitako beldur bat esnatzen denean? Gure baliabideek ihes egiten dute eta beldur horrekin parez pare geratzen gara. Nola

aurre egin horrelako egoera bati?

Hau da ikuskizunean egiten dugun hausnarketa.

## TRATAMENDU DRAMATURGIKOA

Publiko familiarrarentzat zuzendutako ikuskizuna da eta batez ere, txiki eta gazteentzako. Premisa honekin ikuskizunak norabide zehatz bat du.

Alde batetik **antzezlan osoa joku bat** da. Jorratu nahi dugun gai mamitsu hau jokoaren eta dibertsioaren bidez aurre egin behar zaiola uste dugu, bakoitzaren barneko beldurrek geldiarazi ez gaitzaten.

Bestetik umorea duen ikuskizuna da, lehen aipatutako jokua agertu dadin. Eguneroko hizkuntzatik abiatuz eta eszena arinak eraikiz.

Ikuskizuna bi espazioen artean mugituko da:



beldurrak kontatzea.

Alde batetik, Malda eta Zorrotzen pertsonaiak eta haien eguneroko lanbidea, hau da, garraiatu behar diren kutxen antolakuntza. Hau da: **Mundu erreal**a. Hasiera hau erabiliko dugu pertsonai bakoitzaren pertsonalitatea azaltzeko eta testuinguru honetan sortzen diren erlazioa eta elkarriketak. Kasu honetan, bakoitzaren

**Bestetik mundu imaginario hau dugu, onirikoa. Non objetuek bizia hartzen duten eta erlazionatu ahal diren haien artean, biolinjolea, objetu bat izango balitz bezela kontutan izanda baita ere.**



**Antzezlanara aurrera joan hala, Malda eta Zorrotzekin erlazionatuko dira.**

**Guzti hau itsatsi ahal izateko zuzeneko musika erabiliko dugu. Biolina, errobot batean irudikatuta. Musika bait da, dudarik gabe, errealitatea eta ametsen artean dagoen euskarria eta itsasgarria. Bi mundu hauek batzeko berebiziko garrantzia izango du. Musikaria (eta musika) beste pertsonai bat bezela aurre egingo diogu, eta arazoak konpontzeko (edo nahasteko, kasuak kasu) ahalmena izango duena. .**

## TALDE ARTISTIKOA

### Leire Orbe. *Aktorea*



Getxoko antzerki eskolan diplomatura 2012.urtean.Hortik Lastima teatro konpainia sortu zuen eta hainbat antzezlanetan lan egin: “parejas o trio”, “aberats gajoak”...Beste konpainiekin ere lan egin du: Goitibera, La dramática errante , Pabellón 6 , Arimaktore.

2016tik Barakaldoko ARIMAKTORE aretoa kudeatzen du beste bost aktoreekin.

Telebistan bi urtetan egon zen umorezko telebista programa bat aurkezten ETB2an , “ Y PUNTO” ( 2018-2020)2023 an aktore onenaren saria irabazi zuen Pabellón 6ko antzerki arinen jaurdunaldietan.2023an “Yerma” antzelanarekin jarraitzen du lan egiten , aurten MAX saria jaso duen obra.



### Maite Fombellida. *Aktorea*

Bizkaiko Antzerki Ikastegian (BAI) lizentziatua 2004. Urtean Euskal Herriko konpainia ezberdinetan parte hartu du: Porpol Teatro, Kukubiltxo edo Baleuko besteak beste. Antzerki pedagogian esperientzia handiarekin, adin ezberdineko antzerki taldeen irakaslea da.

Mamuak ezagutzera joan zen umea Anodino Teatroarekin egiten duen bigarren parte hartzea da, 2017ko Malda eta Zorrotz eta gero.

### **Aitor Fernandino. Zuzendaritza**

Getxoko Antzerki Eskolan lizentziatua 2003. urtean. Geroztik Euskal Herriko antzerki talde ezberdinekin lan egin du, . Hala nola, Ados Teatroa, Porpol Teatro, Deabru Beltzak edo Txalo . Catalunyiako La Baldufa taldean eta Erre Maskaradaren ekoizpenetan ere lan egin du azken urteotan.

2014. urtean **Anodino Teatroa** sortzen du beste kideekin batera eta lan ezberdinetan parte hartzen du aktore eta zuzendari bezela.

Orain La Lucha por la vida, Arriaga Antzokiko ekoizpenean parte hartzen du.



### **Tomas Ruti. Musikaria**



Madriilen jaioa 1980an, 8 urtekin hasten da biolina ikasten Manuel Gonzálezekin. Geroztik Raffaella Acella eta Aitor Heviarekin ikasi zuen Londreseko Royal Academy of Music-en postgradu ikasketak egin baino lehen, Howard Davis maisuarekin. Gaur egun Donostiako Francisco Escudero

kontserbatorioan biolin irakaslea da eta Oiasso Kameratako concertino eta Zuzendari Artistikoa, Iparraldeko Orkestra Sinfonikoko kolaboratzaile eta beste hainbat taldetako kide ere. Antzerkirako grina institutuan egindako kurtsoetan piztu zitzaion, eta ATeJoka Teatro konpainiarekin egindako Biolin Magikoa-ren hainbat funtziotan.



## ANODINO TEATROA

Aitor Fernandino, Iosu Florentino Badiola eta Aiora Sedano aktore eta sortzaileek, hainbat urtetan konpainia ezberdinetan lan egin eta gero, 2016an, gure bideak elkartu genituen **Anodino Teatroa** sortzeko asmo argi batekin: **euskarazko antzerki komedia egitea**.



Lehenengo eta behin **Zerura Eroria** aretoko ikuskizuna estreinatu genuen Pablo Ibarluzearen zuzendaritzapean eta kritika onek bide horretan jarraitzera animatu gintuen. Urte horretan bertan **Malda ta Zorrotz** haurrentzako antzezlan laburra estreinatu genuen. .

2017an **Erbeste, saihets baten aldarrikapena** estrenatu genuen Donostiako Poltsiko Antzerkia saria irabazi eta gero. . Urte berean **Schrodinger-en katua** antzezlan laburra estrenatu genuen. **Alex Angulo sormen onenari saria** irabazi genuen Pabilioi 6ko Antzerki Arina jardunaldietan.

2019an **ZOM2** antzezlan laburra, Patricia Urrutia eta Aitor Fernandinorekin.

2022. uretan Café Bar Bilbao saria irabazitako Mikel Fernandinoren **Deus ex Twingo** antzezlan labur dibertigarria taularatu genuen Aiora Sedano eta Aitor Fernandino aktoreek.

**OBSOLETUS** gure azken lana da . Aitor Fernandinok idatzitako testua da “Antzerkigintza berriak” izeneko programan parte hartu duena eta Eusko Jaurlaritzaren eta Getxo Kulturaren dirulaguntzaren babes duena.



## Fitxa artistikoa

Aktoreak: Leire Orbe eta Maite Fombellida

Musikaria: Tomas Ruti

Zuzendaritza: Aitor Fernandino

Musika konposizioa: Tomas Ruti

Txontxongiloen eraikuntza: Mikel Fernandino

Testua: Aitor Fernandino

Argiztapen disenatzailea: Soledad Carril.

Ekoizpena: Anodino Teatroa

Banaketa:



943 333 788

677 24 14 14

Informazio gehiago:

[www.anodinodeatroa.com](http://www.anodinodeatroa.com)